



Kaixo familia,

Azken urteetan KILOMETROAK eredu berriaren inguruan asko hitz egin dugu eta horrelako aldaketa sakonak prozesu luzeak izan ohi dira. Kilometroak jaiak, Ikastola ereduaz ezagutarazteko, euskal kulturaren eragiteko eta euskaratik eta euskaraz bizitzeko helburuak izaten ditu, ikastola antolatzailearentzat diru iturri garrantzitsua izaten dela ahaztu gabe. Aurten ez da ikastola antolatzailearik izango baina ikastola guztiontzat egingo dugu lan elkarrekin.

Diru iturriak bermatu eta indartzeko sortu zen TANTA zozketa, Euskal Herriko berezko hezkuntza proiektuaren aldeko elkartasun adierazpen moduan. Bakarra, Euskal Herriko ikastola guztiontzat.

Elkartasuna tantaz tanta osatzen da, ikastola bakoitzak bere alea jarritz. ORIOKO HERRI IKASTOLAN ere, gure elkartasuna erakutsiz eta ia egin genuen modu berean, tanta boletoa saltzeko konpromisoa hartu dugu eta familia bakoitzari 5 txartel saltzeko laguntza eskatzen zaigu. Txartel bakoitzak 5 euroko balioa du eta zozketa 2022eko ekainaren 24ean izango da.

Familia bakoitzak saldu beharreko txartelak zuen seme-alaben bitartez helaraziko zaizkizue. Familiako anai-arreba gazteenari banatuko dizkiogu aipatutako 5 tanta txartelak. Aurreko ikasturtean egin genuen moduan, gehiago saltzeko prest dagoenak ere izango du txartel gehiago eskuratzeko aukera eta aldiz, norbaitek ekimen honetan parte hartzeari uko egin nahiko balio, idazkaritzan itzuli ditzake txartelak. 5 tanta txartel hauen diru-kopurua otsailean kobratuko zaizue.

Beraz, Orioko Herri ikastolako familak eta langileek ere gure tanta alea jarriko dugu eta ikastolen proiektuari eusteko bide sendoak eraikitzen lagunduko dugu guztion artean.

Mila esker zuen elkartasun eta borondateagatik,

ARTEZKARITZA KONTSEILUA